

Lamina eta artzaina

Ixabel Millet-ek kontatua

Behin batean, Itsusko izeneko artzain gazte bat mendian zebilen bere artaldearekin. Halako batean, kantu eder bat entzun zuen eta jakin-minez beterik soinua ateratzen zen lekura joan zen.

Sasi batzuen atzean gordea, aho zabalik gelditu zen han ikusi zuenarekin: harpearen ahoan, harkaitz baten gainean, neska eder paregabe bat ikusi zuen jarria. Ileak orrazten zituen bitartean, ahots ezti batez abesten zuen. Itsuskok ezin zituen begiak neska harengandik baztertu.

Halako batean, neskak kantatzeari utzi, sasietara begiratu eta Itsusko ikusi zuen. Orduan, arin zutitu eta bere begi handi ederrak irekiz, Itsuskori galdegin:

- Nor zara?

Itsuskok ezin zuen erantzun.

- Nor zara zu? -galdegin zion berriz neskak.

Itsuskok ez zuen bere bizian horrelako ahots goxorik entzun. Azkenean erantzun zion:

- Itsusko naiz. Eta zu?

Neskak irri karkaila bota, eta erantzun gabe harpera sartu zen. Itsusko, orduan, etxera itzuli zen, pentsakor.

Egunak joan egunak etorri, ezin zuen harpeko neska hura burutik kendu.

Azkenean, mendirako bidea hartu zuen berriz. Leku hartara heltzen ari zela, berriz kantu ederra entzun zuen eta barnea lasaitu zitzaion.

Neska, harkaitzaren gainean, ile luzea orazten ari zen. Itsusko ikustean, irri egin zion.

- Egun on, Itsusko, zure zain nintzen.

- Nire zain?

- Bai, zatoz, hurbil zaitez.

Itsusko harpeko ahora joan eta neskaren ondoan eseri zen. Orduak joan, orduak etorri, bietan inork ez zuen hitzik erraten, elkarri begira besterik ez. Halako batean, neskak galdetu zion:

- Nirekin ezkonduko al zara?

Eta Itsuskok, besterik gabe:

- Bai. Segurki.

Neskak eraztun bat eman zion eta Itsuskok erhian jarri zuen. Ondoren, etxera itzuli eta amari erran zion:

-Ama, ezkondu behar dut.

-Ene, seme! Eta norekin? -galdegin zion amak.

- Nire bizi osoan ikusi dudan neskarik ederrenarekin.


Amak jakin nahi zuen nor zen neska hura eta galdezka aritu zen. Azkenean, mutila liluraturik zegoela ikustean, honela erran zion:

- Seme! Xarmatua zarela daukat... Ziur ote zara neska hura normala den? Ikusi ote dizkiozu oinak?

- Oinak? Baina, ama!

- Hitzeman behar didazu neskaren oinak ikusiko dituzula.

- Beno, zaude lasai, ikusiko dizkiot, ba!



Erran eta egin. Itsuskok mendirako bidea hartu, eta iristean, ahal bezain isilen hurbildu zen. Bere maitea ibai bazterrean ari zen bere ile luzeak orrazten, uretan dir-dir ari zen urrezko orrazi batekin. Bere irria milaka kriskitinen zirudien. Beraz, bere damaren oinak begiratu eta... Ene! Ahate oinak zituen!

Itsusko sor eta lor gelditu zen. Behin eta berriz oinak begiratu ondoren, etxera itzuli zen eta, goibel, amari erran zion:

- Ahateak bezalako oinak ditu.

-Ene! Lamina da! Ezin zara berarekin ezkondu!

- Badakit. -erantzun zion negar-zotinka.

Itsusko, bihozmin izugarri batek jota, ohean sartu zen, sukarra eta malenkonia aldiak zituela.

Maitearen aurpegi ederra ikusten zuen etengabe, eta bere ahots goxoa entzuten zuen: zatoz, zatoz, Itsusko, zatoz... Baina ez zen harengana joan, eta, egun batean, penaren penaz hil zen.

Lurperatze egunean, Lamina Itsuskoren etxera joan zen eta gizon hilaren ohera hurbildu zen.

Intxaur batetik ateratako urrezko maindire batez estali zuen eta musu goxo bat eman zion.

Gero, elizaraino lagundu zuen eta elizara sartu ezin zuenez, mendira itzuli zen negarrez.

Negar eta negar egin zuen eta bere malkoak erori ziren lekuan iturri bat sortu omen zen,

Lamina eta gizonaren arteko ezinezko maitasunaren oroimenez.

Eta hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila herriko plazan.